

ZENBAT BURU
Koldo Galdona

ERREPORTAIA
IMHko Erreminta
Makinaren Museoa
inauguratu da

BERBETAN
Gotzon Garate
idazle elgoibartarra

KIROLA
Alberto Berasategi
tenista Elgoibarren
izango da
hilaren 23an

KULTURA
EKEKEI antzerki
taldeak
10 urte bete ditu

BARRREN

1998ko abenduaren 180
V. urtea 260. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

IMHKO MUSEOAREN 1NAUGURAZIOA

Elgoibar, erreminta makinaren hiriburua



"Museoak erreminta makinaren 100 urteko historia biltzen du" Pedro Ortuondo, zuzendaria

ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi

AUTO-ESKOLA

*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

eta motorrentzako
gida-baimenak



Eguberri on!



San Frantzisko, 43 — Tel: 74 27 20 ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 — Tel: 20 34 45 E1BAR

IV. MORKAIKO ARGAZKI LEHIAKETA

rs. 4*1

Gaia: Mendia

Neurria: Librea

Koloreetan nahiz zuri-beitzean

4 argazkii behienez

**Egoibartarrei eta Morkalko 1111.E.ko
bazkideei (Elgoibarkoa ez bada)
zuzendutako lehiaketa.**

**Argazklak aurkezteko epea:
Abenduak 18, ostirala (Morkaikon)**

OHARRAK:

Argazkien atzealdean non
eta noiz ateratakoak diren jarri
behar da.

Argazki guztiekin erakusketa
egingo da Kultur Etxeko
erakusgelan abenduaren
30era bitartean.



KOLDO GALDONA

Ahanu egin al zaigu hasierako ilusioa?

Hemen azpian, nire hitzen ezker aldean eta nire erretratuaren beheko aldean dioen bezala, "atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterkoan, besteak beste, pluraltasuna izaten da kontuan".

Ni, pluraltasun honen parte izanik, hirugarren aldiz botatzera noakizue nire usteen sermoia. Baina, oraingoan, batez ere eskerrak emateko erabiltzeko dut eskaintzen didazuen orritxo hau.

Eskerrak eman nahi dizkiet nire idazkiak errespetu osoz eta txintik ere esan gabe irakurri dituztenei. Baita irakurri eta berehala irainez josi nautenei ere. Hitzen formatoa eta argazkia guztiz gaizki ez daudela pentsatu duzuenoi, nahiz eta irakurri ez, zuoi ere eskerrik asko.

Baina ez dut narzisista edo egozentriko deitzerik nahi, beraz, eskerrik handienak aste-kari hau argitaratzen duzuenontzat dira.

Badirudi ahaztu egin dugula zelako ilusioa egin ziguten estreinakoz argitaratu ziren aleek. Harrigarria eta oso kurioa begitandu zitzaigun kalean egunero ikusten genuen jendea paperean inprimatua ikustea. Gaine-

ra, herrian gertatzen ziren gauzez jabetzen hasi ginen lehenengo aldiz: ez geneukan Madalaraino joan beharrik zinean zer jartzen zuten jakiteko, eta beti jakin izan dugu Bandaren kontzertuaren edo eta edozein futbol partiduren ordu egokia.

Bestalde, gure amorru edo esker ona, beste gauza erabilgarriago batean bihurtzeko bidea eman zitzaigun: gure iritzia nahi genuenean eta nahi genuenari buruz eman genezakeen. Askok gogoratu izan dugu lagun baten urtebetetzea aldizkartan bere argazki irribartsua ikustean. Eta zeinek ez du noiz edo noiz BARRENen agertu nahi izan, aipamen txiki bat bada ere? BARREN Elgoibarko hondare kulturala bihurtu dela esan dezakegu eta ez dagoela Elgoibarko gaurkotasuna

ulertzerik BARREN kontuan hartzen ez bada.

Gogoratzen duzue? Badirudi ohitu egin garela horrelako bitxi bat gure artean izaten, honelako altxorari inportantzia gutxitzen. Beraz, ez dut uste gaizki datorrenik noizean behin BARRENek zenbat gauza aldatu dituen gogoraraztea.

Hala delakoan, eskerrik asko guztioi eta nahi duzuen arte.

"Badirudi ahaztu egin zaigula zelako ilusioa egin ziguten estreinakoz argitaratu ziren aleek. Harrigarria eta oso kurioa begitandu zitzaigun kalean egunero ikusten genuen jendea paperean inprimatua ikustean."

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
Tz 943 74 41 12
Publizitatea:
s' 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jaigi.com

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRATZIOA	Amaia Martin
GenntzrtA	Rata Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	trati Agfrreazaldegi, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Eluslonclo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Inaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Iban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA AROURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.100 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



fundazioa
fundaciOn
raM1...

41 DANOBAT

44 GOITI
GRUPO DANORAT

INGINGO DUGU plataformaren eskerrak

INGINGO DUGU plataformako ki-deok, Mendaroko Kontzezio azokan jarritako txosnak izan zuen harrera ona ikusita, lehenik eta behin, herritar eta kanpotik etoni ziren guztiei esker-rrak eman nahi dizkiegu. Era berean, txosnaren antolakuntzan lagundu zituzten ondoko pertsona eta elkarteak bihotzez eskertu nahi ditugu: Mendaroko Udala, Elgoibarko Talde Antimilitarista, Trinidadeko Jai Batzordea eta Agustin Lazarobaster, Patxi harategia, Asensio Artetxe, Juanita eta Isabel Elorza ahizpak (talo ikastaroarengatik), Jose Mari Kortaberrr, Bustin-Alde eta Aizpe elkarteak, Txirristaka Kooperatibako auzolagunak, Kurutz Kastrillejo elgoibartarra eta Don Angel apaiza.

Honez gain, dendan saldu ziren produktuak eskaini zituzten mendarotarrei, gure esker ona. Amaitzeko, esan nahi dugu, balorazio oso positiboa egin dugula.

INGINGO DUGU Plataforma

GARAREN aldeko deialdia

Euskal Herrian GARA egunkari berria sortzeko egiten ari den diru-bilketan lagundu nahian, sei bat lagun elkartu gara 'Gu Geu GARA' izenpean, eta datorren Gabonzahar ferian (abenduak 26, zapatua), talo-opilak eta edariak eskainiko dituen txosna antolatu nahi dugu. Arrazoi honengatik, deialdia luzatu nahi diogu lanerako prest dagoen edonori.

Bilera hilaren 21ean, astelehena, egingo da, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean.

GU GEU GARA

Ertamerika eta ONG-GKEak

BARRENeN arsznaratutako hurakanari buruzko erreportajea irakurri ondoren, zenbait gogoeta azaltzea gustatuko litzaidake. Ez da nire asmoa inoren lana juzkatzea, baina Ertamerikako egoerari dagokionez, zona honetan ONG edo GKE askok betetzen duten paperarekin kritikoagoak izan beharko genukeelakoan nago.

Amerikako zonalde borrokalaria hau historikoki EEBB-etako 'atzeko patioa' izan da, mota guztietako esperimientuzkako eremu zabal bihurtu delarik.

'Gerra kontrainsurgentea' delatik hasita (*Escuela de las Americas* Panama; *Aldeas modelo eta Patrullas de autodefensa civil* Guatemalan; *Escutrones de la nzuerte* El Salvadorren,...), EEBBek eta FMik herri aberatsen onspenarekin diseinatutako neoliberalismo basati batera arte, gutxiengo bat babestu eta gehiengo handia miseria gorrian bizitzera kondenatua dago.

Bien bitartean, gobernuak eurei dagokien morroi papera primeran betetzeaz arduratzen dira. Panorama honen aurrean, GKEak perretxikoak bezala ugartzen ari dira. Asko dira 'elkartasuna'ren lepotik primeran bizi direnak.

GKE hauetako askok (nik ezagutzeko aukera izan ditudan behintzat), harrokeriaz, paternalismoz eta dolar askorekin, noski, herri hauetako mugimendu popularra indargabetzeaz batera, gobernuak dagozkien ardurak bere gain hartzen dituzte zenbait kasutan.

Azken batean, Ertamerikako elite txiki baten neurriko sistema ustela finkatzea da egiten duten gauza bakarra.

Bien bitartean, herrialde aberatsek herri hauek lepotik hartuta dituzte eta bestetik, iritzi publikoari begira, euren esku zikinak garbitzen dituzte.

Eduardo Urbiola Arriola

BARRENEK ez du bere gain hartzen inITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarlzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**,

• Gazte batek kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "Lotsagarria iruditzen zaidan aktuazioa salatu nahi dut. Ostegunean, abenduak 3, beti bezala, azoka izan zen Plaza Handian. Eguerdia parterako, paper kontenedorearen alboan kartoi multzo handia pilatu zen. Une batean, zakarren kamioia (eta ez birziklatzeko kontenedoreen kamioia) kartoi multzora hurbildu eta langileek lasai-lasai kartoiak hartu eta zakar kamioira bota zituzten. Gure Mankomunitatearen beste 'aktuazio' miresgarrietako bat dugu honakoa, kontzientzia kanpainetan etab. ean sekulako dirutzak gastatu eta gero, hipokresia handiz, horrelako adibide negargarriak erakusten dizkigute. Betealde, harro nago herritarren artean zabaltzen ari den birziklaiarekiko sentsibilitateaz. Badira gehiago egin dezaketenak, baina gero, ez dute ezer egiten".

• Urasandiko lau neskato etorri dira salaketa honekin: "gure auzoan Gabonetako argiak daude jarrita, baina abenduaren 24ra arte ez dituzte pizten. Aurreko urteetan ere berdin egin izan dute eta ez dugu ulertzen zergatik den horrela, beste auzoetan eta kaleetan lehenago pizten baitituzte".


• Pedro Muguruzako bizilagun batek Lanbroa eta Herriko Antzokiaren artean, "espaloia apurtuta" dagoela salatu nahi du. "Egun hauetan euria egin du eta azulejoak apurtuta dauden tokian ura sartzen da. Oinezkoek azulejo horiek zapaltzen ditugunean busti egiten gara eta ura zikina dagoenez, praka banenak zipritzintzen zaizkigu".

• Arregitorren bizi den emakume batek deitu digu oso haserre "gure etxien atzian dauan parkia lotsagarria daualako. Parkia ein zabenetik ez dabe konponketarik ein. Garbitxasunik ere ez dot uste ingo dabenik. Jarlekuak apurtuta daoz, kotunpixuak beste horrenbeste, lurra lokatzez beteta... Fotografia ateratzia merezi dau Udaletxekuek ikusi deizen zein negargan'i daon".



• "Basarte kalean bizi naitzen pertsona bat naiz eta etxera joateko egunero pasatu behar ditudan trabak salatu nahi ditut Udalaren eta elgoibartarron aurrean. Denon jakinean dago, Madalatik eta San Roketik Mintxetaraino dagoen bide kaxkarra, bereziki oinezkoentzat. Era berean, espaloia dagoen eta ez dagoen tokietan, autoak oso gaizki aparkatuta egoten direla denok dakigu, oinezkoak bide erditik pasatzera behartuta gaudelarik. Ezbehar bat gertatu behar al da Udalak zerozer egiteko?".

• Herriko bi neska gaztek, San Rokera igoeran, trenbide gainean hain justu, "demaseko kiratsa" egoten dela-eta kexatu nahi dute. "Egun hauetan oso usain txarra dago zona horretan eta bada zer-bait egiteko ordua".



Gogoratu!

Aurten ere enkarguak
dohainik lor ditzakezula!

943 74 28 75

Erremintl makinare museea zabalik

Askotan esan izan da Elgoibar dela erreminta makinaren hiriburua. Izan ere, enpresa asko eta asko aritzen dira aipaturiko sektorean eta, hori gutxi balitz, Elgoibarren dago Estatuko erreminta makinaren institutu bakarra: IMH. Edozein modutan, Elgoibarrek sektore honekiko duen loturaren culierazgani izango da aurre-

rantzean eraiki berria den museoa. Asteazkenean, hilak 16, zabaldu zituen ateak erreminta makinaren museoak. Bertan, besteak beste, gure herriko ekonomiaren motorra izan denak historian zehar izan duen bikkaera ikusteko aukera izango dugu. Igandean, hilak 20, 10:00etatik 14:00ak arte, ate irekien eguna izango da.

Duela laupabost urte hasi zen mamitzen erreminta makinaren museoa eraitzeko ideia. Pedro Ortuondo durangarra da zuzendaria. Berak esan digunez, "zenbait ate jo genituen aurreproiektua aurkeztuz. Gure asmoa, enpresen erantzuna ikustea zen. Baina, garai hartan erreminta makinaren sektorea krisian zegoen. Momentu txarra zen enpresentzat eta gure deiari ez zioten apenas erantzun". Hala ere, proiektua baztertu gabe, ideiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Poliki-poliki, han eta hemen pausoak emanaz, asmoa errealitate bihurtzen hasi zen.

ERREMINTA

MAKINAREN HISTORIA

Eibarren eta Elgoibarren armagintzak ikaragarritzko pisua zeukan garai batean. Hala ere, XIX. mendeko azken urteetan, erreminta makinaren sektorea indartsu sartu zen eta, gaur egun, eskualdeko ekonomiaren bultzatzailetarikoa izateaz gain, egoera ezin hobean dago, punta-puntako enpresak hemen daudelarik. 100 urteko ibilbide honetan, makinak izugarri aldatu dira. Garai batean artelana zena, gero eta gehiago mekanizatu da eta egungo makinek, denbora gutxienean ahalik eta gehien produzitzea dute helburu. Dena dela, badira hainbat makina zahar oraindik ere beraien funtzioa ondo baino hobeto betetzeko gai direnak. Edozein modutan, urte hauetan izan diren aldaketak jasotako eta ordenatzeko beharra zegoela ikusirik, museoaren ideia martxan jarri zen. Gaur egun, 100 makina inguru daude ikusgai Elgoibarko erreminta makinaren museoan. Euskal Herri osotik ezezik,




Pedro Ortuondo,
Museoko zuzendaria.

Estatutik eta atzeritik ere ekarri izan dira zenbait makina. Kasu batzuetan, enpresa itxi eta txatarrara joan behar zuten makinak berreskuratu dira, pintatu, konpondu eta martxan jarri. Bestetan, enprekin negoziatu behar izan da makinaren salerosketa. Donazioak ere badaude. Besteak beste, Estatuko lehen motorra dago ikusgai, Mendaroko *Saint Gerons* txokolata fabrikak emandakoa. Erakusketan dago, baita ere, *Estarta y Ecnarro* enpresak 1916 urte aldera fabrikatu zuen fresadora bat, Cinceinatiko modelo baten kopia dena. Tornoak, limatzaileak, ajustadorak.... Askotako eta asko dira aurki daitezkeen makinak.

MUSEOAREN FUNTZIO DIDAKTIKOA

Esan dugun bezala, museoaren helburunk garrantzitsuena edo azpimarragarriena, erreminta makinaren sek-






Museoaren eskumako aretaan. antzinako burdindegi bat nolakoa zen ezaginzeko aukera izango dugu.

toreak historian zehar izan duen kaera jaso eta azaltzea da. Horrez gain, urteen eraginez makinek izan dituzten aldaketan erakusgarri, hainbat eta hainbat makina biltzen dituzten erakusketa ere badago.

Baina, aipagarria da, museo honek izan nahi duen funtzio didaktikoa. Hau da, gure herrian hainbesteko garrantzia izan duen sektorearen historia nondik nora joan den azaldu nahi dute. Pedroren esanetan, "nahi genukeena da, enpresetako jendeaz gain, eskoletatik ere ikasleak erakartzea, makinak nola aldatu diren eta batez ere, nola funtzionatzen duten zuzenean ikus dezaten". Makinak martxan egongo dira, "azken batean, bizidunak dira nolabait. Makinak geldi ikustea oso hotza izango litzateke. Guk nahiago dugu martxan jarri eta piezak nola egiten diren azaltzea, ikasleek funtzionamendua uler dezaten".

Museoa hiru zatitan banatuta egongo da. AIDE batetik, mende hasierako me-

kanizatuen tailer bat egituratu dute. Bertan 60 makina inguru izango dira eta, horien bidez, industrializazio pro-



Makina zaharrak konpondu eta martxan jarri dituzte. 100 bat daude guztira.

zesua Euskal Herrian nola gauzatu zen ikus ahal izango da. Tailer honetan muntaia eta ajustea egingo dira, mekanizatu-afilatu operazioak, antzinako makinak berreskuratuko dira eta haiek eredu hartuta, makinaren enproduktzio txikiak egingo dituzte museoko dendan saltzeko.

Bigarrenik, antzinako burdindegi-kaldereria baten itxura izango duen gunean, erreminta makina sektorearen garai aurre-industrialaren nondik norakoak azalduko dira. Azkenik, dokumentazio zentro bat sortu nahi dute gaiaren inguruko liburuekin eta CD Rom baten bitartez ahalik eta informazioz zabalen eman.

400 m² dituen museo hau, erreminta makinaren museo bakarra da munduan eta benetan gauza bitxiak aurki daitezke bertan. Guztira 55 milioi pta.ko aurrekontuarekin hasi da. Sortzaileak eta bultzatzaileak asko dira: 70 enpresa eta 30 pertsona inguru, Erreminta Makinaren institutua, AFM eta Elgoibarko Udala.

ABENDUAK 16, MUSEOAREN INAUGURAZIOA

Jose Antonio Ardanza lehendakaria ekitaldian tan zen

Luis Arrieta, Cruz Arriola eta Pepe Arana enpresari elgo[badarrak omendu zituzten



Asteazken eguerdian, IMHko museoa inauguratu zen. Bertan izan ziren Guillermo Garate alkatea eta beste udal agintari batzuk, Javier Retegi Industria Sailburua, Roman Sudupe Aldun Nagusia, Alberto Ortuea AFMko zuzendaria, Patxi Aldabalde-treku Museoko Patronatuko presidentea, Elgoibarko hainbat eta hainbat enpresa gizon eta, Jose Antonio Ardanza jarduneko lehendakaria. Lehenik,

IMHko areto nagusian, erreminta makinaren sektoreari bizitza osoa eskaini dioten hiru elgoibartar omendu zituzten: Luis Arrieta, Cruz Arriola eta Pepe Arana. Hiruek oroigarri bat jaso zuten eta Ardanza Lehendakariak azpimarratu zuen bezala, "gaur, zuek zarete erreminta makinaren sektorean azken 50 urte hauetan lan egin duten elgoibartar enpresarien ordezkariak. Sektore honek garai onak eta ez hain onak ezagutu di-

tu. Baina beti jakin izan duzue atutera egiten. Zuek zarete datozen belaunaldientzako erredua".

Ondoren, guztiak museoaren sarrerara hurreratu ziren. Bertan, Haritz Dantzari Taldeko kide batek aurrerakua dantzatu eta gero, Ardanza lehendakariak inaugurazio eguneko monolitoa desestali eta zinta moztu zituen. Jarraian, 100 urteko historia biltzen duen museoa ikusi zuten.

OMENDUTAKO ELGOIBARTARRAK

Luis Arrieta



16 urterekin *Fundiciones Urasandin* hasi zen Ianean. *Alcorta* y Cian aritu zen ondoren, eta 1958an, "lagun talde batekin", *Eguzki* Kooperatiba sortzeari ekin zion. "I 970ean *Danobatekin* hat egin eta sektoreko enpresarik inportanteena bihurtu zen". Zuzendari nagusiaren laguntzaile lanak egin zituen bertan. 1979an, lehenengo agintealdi demokratikoan, Elgoibarko alkatea izan zen, eta ondoren, AFMko presidentea.

Jose Arana



Esperanza v Cla lantegian 16 urte zituenean hasi zen. 1929an, *Omega* lantegian hasi zen, "baina gutxi iraun nuen, *Solidaridad de Trabajadores Vascos* delako erakundeko bazkide egin bainintzen". 1930ean, *Estarta* y *Ecenarro* lantegian sartu zen. 1942an, Rafael Uriberekin batera, *Jarbe* sortu zuen eta 1947an, *Nicolas Correa* enpresaren sorreran hartu zuen parte. 1967an, *Geminiseko* gerente izan zen jubilatuta arte.

Cruz Arriola



14 urterekin hasi zen lanean *Sigman*. 18 urte zituenean, *Herola* esportazio enpresa sortu zuen beste lankide batzuekin. Enpresa askotako sortzallea izan da: 1952an *Lagun* enpresa sortu zuen eta 1959an *Gemitzis*. 1962an AFMko presidentea izan zen eta 1982-1995 urteen hitartean, ADEGIko presidenteordea. 1995 urtera arte, jubilatuta arte, hain zuzen, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako presidenteorde kargua bete zuen.

AITOR ZABALETA
REALZALEAREN HILKETA

lein gogoeta egingo zenuke gertaera honen inguruan?



BIXENTE LAZKANO
71 urte, jubilatua

Horrek gauzok jende gaztienak dia, fundamentu gutxiko jendianak. Lehen, gure epokan pasatzen zian holakuak, baina oin ematen dau gauzia txarrera dixela.



TERE GOROSTEGI
36 urte, etxeoandrea

Ez dute errealzale bat hil nahi izan, euskaldun bat baizik. Madrileko zaletuen eta hemengoan artean oso giro txarra dagoela iruditzen zait. Pasada bat.



LUIS GOMEZ
32 urte, diakonoa

Honen atzian biolentzian kultura bat dao. Ideologia faszista duten taldeetan euskaldunak ez gaituzte begi onez ikusten. Eta horrek eragina izan du.



JOSE MANUEL LLONIN
67 urte, jubilatua

Oso gaizki dago. Penagarria da futbol partidu bat ikustera joan eta horrelako gauzak gertatzea. Futbola kirol hutsa izan beharko litzateke, baina itxura denez, ezinezkoa da.



NURIA BERGUA
29 urte, optikoa

Lehen ere pasau izan diaz holakuak eta argi dao futbolan atzetik deportia baino gauza gehixo daozela. Politika ere nahastau da. Faktore asko eon diaz.



MAITE ANSOLA
25 urte, umezaina

Biolentzia ezin da justifikatu eta are gutxiago kirolean. Talde batzuetako zaletuen artean pike sanoa dago, baina beste batzuen artean oso giro txarra dagoela igartzen da.



1NTURAN
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea, .3 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

CordonNilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

• Gahonzahar eguneko bazkarirako txartelak salgai

Abenduaren 26an Gabonzahar feria izango da. Aurten, Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena betetzen duela eta, 'Plazara Dantzara' saioa girotzeko asmoz, herri bazkaria izango da Ikastolako frontoian, Bazkari txartelak 1.750 pta.n daude salgai abenduaren 19ra arte Pitxintxu dendan, Kaia, Usoa eta Jai-Alai tabernetan eta Olai-zaga kiroldegian.

• Itxaropena abesbatza Soraluzen

Bihar, hilak 19, Itxaropena abesbatzak kontzertua emango du Soraluzeko Santa Maria de Ia Real elizan gaueko 22:00etan hasita. Lehendabizi, Elgoibarko abesbatzak Gabon kantik abestuko ditu eta ondoren, Soraluzeko Ezoziko Amaren abesbatzak kantatuko du. Amaieran, bi abesbatzek elkarrekin, 'Adeste Fideles' eta 'Hator-hator' kanta eza-gunak abestuko dituzte. Kontzertu bera, hil honen 31n Elgoibarko Parrokian emango dute bi abesbatzek.

• Ilisialdirako begirale ikastaroa


Elgoibarko Gazteen Gurutze Gorriak aisialdirako begirale titulu ofiziala lortzeko ikastaroa martxan jartzeko asmoa dauka. Elgoibarko gazteek ezezik, Deba Beheko herrietako gazteek ere izango dute parte hartzeko aukera. Ikastaroa asteburuetan egingo da eta ikasleak 18 urte baino gehiago izan behar ditu, Ikastaroa unibertsitateko kredituen konbalidaziorako lagungarria da. Euskara soilean emango dira klaseak. Informazio gehiago eskuratzeko eta matrikularen gaineko datuak jakiteko 943 22 22 22 telefonoa zenbakira deitu.

Larrabetzu 2000 enpresak erosi ditu Sigmako lurrak

Bilboko elkarte honek 401 milioi pta. ordaindu ditu terrenoengatik

Joa den abenduaren 3an Donostian egin zen enkantean, Bilboko Larrabetzu 2000 S.L. enpresak Sigmako lurrak erosi zituen. Hasieran, bost entitate agertu ziren lurrak erosteko prest, baina azken unean hiru konstruktorek enkantean parte ez hartzea erabaki zuten. Hortaz, bi proposamenek bakarrik egin zuten aurrera: bat, Larrabetzu enpresa bizkaitarrarena, eta bestea, Elgoibarko Udalaren, Sigmako lokaletan dauden enpresen eta herriko beste bi lantegiren proposamena.

Elgoibarko Udalak eta herriko enpresek 333.320.000 pta. eskaini zituzten Sigmarengatik. Eskaintza ekonomikoarekin batera, beste asmo bat ere plazaratu zuten: Iur hauetan jarduera industrial nagusi izatea. Hala ere, azkenean Bizkaiko enpresaren proposamena irabazi zuen, dirutan handiagoa baitzen, 401 milioi pta.koa, hain zuzen. Bizkaitarrek ere, lurrak industriarako erabiliko direla ziurtatu zuten. Honez gain, bertan dauden enpresei pabiloiak



erosteko aukera eskainiko diete lurrek izango duten balioaren arabera. Beste aukera bat alokatzea izango da, hileko 350 pta./m2 bakoitzeko.

Azkenean, Sigmako lurrak kanpotarren esku geratuko diren arren, Gillerro Garate alkatea "nahiko pozik" dago Sigmari eman zaion irtenbidearekin. "Larrabetzu enpresaren asmoak Udalaren interesen bidetik doaz. Hasieratik, gure asmo nagusia Sigma gune industrial izatea zen eta bertan dauden enpresak aintzat hartzea. Bi eskari hauek kontuan izan dituzte eta beraz, pozteko modukoa da".

Ander Gerenabarrenak irabazi du Parrokiako Jaiotza lehiaketa

46 taldek hartu dute parte eta "oso maila handia" egon da aurten

167 haur, 46 taldetan banatuta, izan dira Parrokiak antolatzen duen Jaiotza Lehiaketan parte hartu dutenak. Epaimahaikoek lan gogorra izan dute 46 jaiotzen arteak onenak aukeratzeko, katekistek esan digutenez, "oso maila handiko Jaiotzak ikusi baititugu

aurten". Azkenean, lehenengo saria Ander Gerenabarrenak egindako Jaiotzari ematea erabaki zuten (argazkian Jaiotzarekin agertzen da). Ondorengo lau sariak honela banatu dituzte: bigarren saria Unai Gasteain, Jon Perez-Cortes, Jonatan Martin eta Igor Estevezek egindako Jaiotzarentzat; hirugarren saria Laura eta Sergio Agirregomezkortak irabazi zuten; laugarrena Amaia Vegas eta Alba Esnalek eta bosgarren saria, Joanes Rodriguezek. Lehenengo bost Jaiotza onenen egileak dira argazkikoak.

Lehiaketan parte hartu duten Jaiotza guztiak Errosario kaleko 1 zenbakiko Iokalean ikusgai daude dagoeneko.





Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan elgoibartappak saritu dituzte

Argazkiko neskatoak Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleak dira eta hil honen 3tik 8ra bitartean, Arrasaten izan zen Gipuzkoako XI. Akordeoi Lehiaketan parte hartu zuten. Laura Vegas eta Ainhoa Zapatak oinarrizko mailan zilarrezko domina lortu zuten.

Bestalde, 'Ganbara musika' ataleko A mailan, Laura Agirregomezkortak eta Alazne Urangak (atzean, ezkerreko biak) brontzezko domina bana irabazi zuten.



Saharari eskainitako eguna

Zuhaitz Astialdi Taldeak Saharari eskainitako eguna antolatu zuen joan den zapatuan, hilak 12. Udaletxeko arkupeetan Saharako 'Jaima' bat muntatu zuten, eta honez gain, Sahararen historiari buruzko panel informatiboak ere jarri zituzten. Sahararekin elkartasuna adieraztea eta bertakoak nola bizi diren erakustea ziren ekitaldiaren asmoak. Arratsaldean bideo emanaldiak eta ipuin kontaketa antolatu zituzten haurrentzat.



Erromeria papegabea 'Tapia eta Leturiafrekin

Elgoibarko Izarratik esan digutenez, giro polita izan zen hilaren 12an, Kultur Etxeko sotoan antolatutako erromerian. Kultur Errota egitasmoko 2. saioa izan zen eta gaueko 21:00etan 35 lagun inguru elkartu ziren mokadu bat egiteko. Afalostean, Tapia eta Leturiaren erromeria hastearrekin bat, herritar gehiago arrimatu ziren. Erromeria amaitu ordurako goizaldeko 2:00ak jo zuten.

Clitas-ek ia 4 milloi pta. banatu ditu familien artean

Parrokiko Caritas Elkartek 97ko diru-kontuen berri eman du. Elkartek iaz zituen zituen sarrerak 4.005.750 pta.koak izan ziren. Kopuru honi aurreko urteetan gastatu gabe geratu zen dirua batuz gero (918.223 pta), sarrerak 4.923.973 pta.ra iristen dira. Gastuen atalean, partidari inportanteena herriko familia behartsuen artean banatutako kopurua da, 3.937.500 pta. hain justu. Bestelako gastuak kontuan izanda, Caritas-ek 4.334.158 gastatu zituen guztira 97an. Sarreraren eta gastuen arteko diferentzia beraz, positiboa da: 589.815 pta. geratzen dira Caritas-en kutxan.



Gipuzkoako Jubilatu Elkarteen bilera

Abenduaren 4an, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsionisten Elkartek antolatuta, bilera izan zen Elgoibarko Jubilatu Etxean. Alberto Gareia Hinosak (Gipuzkoako Jubilatu eta pensionisten Elkarteko lehendakaria), Jose Maria Aizpunek (Elkarteko idazkaria) eta Ricardo Merinok gaur egungo jubilatuen egoerari buruz hitz egin zuten, besteak beste, bolondresen gaia aztertuz eta Aldundiak jubilatuen gaia nola tratatzen duen azalduz. Bileraren ostean 72 lagun elkartu ziren bazkari eder baten bueltan.



Espeleologiari buruzke erakusketa

Leizarpe Espeleologia Taldeak 'Expogel 98' izeneko erakusketa antolatu du Kultur Etxean. Irekiera ekitaldia joan den ostiralean, hilak 11, izan zen eta egun horretan atera genien argazkia Leizarpe Espeleologia Taldeko zenbait kideri. Hilaren amaiera arte irekita egongo den erakusketan, haitzuloetan ateratakoa argazkiak, superbibentzia ikastaroetan egindako lanabesak, mineralak, fosilak etab. ikus daitezke.

ARTAZO baserriaren aldeko

J A I A L D I A



HERRIKO ANTZOKIAN

Abenduak 18, ostirala

Gaueko 22:30ean

GELATXO
BERTSOLARIAK:
Meabe, Ziarda,
Armaitxa eta Loiola
DUO PLAENTX!
HERRIKO DULTZAINEROAK
JOSU MUJIKA

HARITZ DANTZARI TALDEA
TRIO LOS JAROSCHOS
TRIKITILARIAK:
Ohiane eta Eneritz
IKASTOLAKO UMEEN ANTZERKIA
UDALAREN TXISTULARI TALDEA
ARMANDO BENITO

LAGUNTZAILEAK



ELGOIBARKO UDALA

DEBEGE571



ONGARRI Fotografi kolektiboa



HAIZEA

Elgoibarko Emakume taldea



FORU ALDUNDIA




UDALAREN MUSIKA
eta DANTZA FUNDAZIOA

ANTOLATZAILEAK



5X LOBENTEEVZQA
ELKARTEE



HARITZ E.D.T.



Azilabete honetako argazkia M. Jesus Arakistainek laga digu. Argazkia 1970ean aterata dago. M. Jesusek esan digunez, argazkian agertzen direnak garai hartan Mendaroko dantza taldea osatzen zutenak dira.

Antza denez, monitoreanekin egunpasa joan ziren Urbiara eta tartea aprobetxatu zuten erretratua ateratzeko. Hona hemen agertzen direnen izen-abizenak:

Zutik (atzeko ilaran), ezkerretik hasita: **M. Arrizabalaga, Jose M. Zelaia "Bizkar, Agustin Urbietta, Juanita Loiola, M. Jesus Arakistain, Agustin Berasa-**

luze, Pedro Manuel Mendikute, Itziar Lazkano eta Jose Ignacio Zulaika.



Zutik, bigarren ilaran: **Izaskun Jauregi, Aitor Etxeberria, Amaia Landa, Angel Loiarte, Elena Garate, Juan Antonio Zubiaurre, Juan Agustin Arriola "Arta", Alfonso Garcia, M. Jose Vecina eta Jesus Garazo.**

Belauniko, hirugarren ilaran: **Joseba Etxeberria, Gemma Garate, Jose Luis Arriola, Maite Txurruka, Inuna Urruzola, Paulino Zabaleta, Arrate Iriondo, Ana Isabel Loiola eta Arrate Loiola.**


Lurrean eserita: **Arantza Goikoetxea, M. Jose Escobal, Edurne Arrieta, Amaia Etxeberria, Gemma Arri-llaga, Eva Olazabal, Matilde Idiakez eta Asun Loiola.**

111, KONTZETZIO AZOKAK

i aren 5ean izari''
 zen IV. Kontzetzio
 azoka Mendaron.
 Garai batean
 Garagartza auzoan
 egiten zen
 inguruotako
 nekazal feriarik
 inportanteena baina,
 urte luzez galduta
 egon eta gero, duela
 lau urte
 berreskuratu zen.
 Orduetik, urtero
 urtero, hainbat eta
 hainbat nekazari eta
 artisauk euren
 produktuak
 erakusten dituzte eta
 hurreratzen diren
 ikusleek aukera dute
 erosketak egiteko.



GIRO APARTA IZAN ZUEN



Giro polita izan zen ferian. Jende mordoska inguratu zen Goñati politalekura eta eguerdi partera izan zen hertso bazkarian jatetxea bete egin zen. Egaña, Matu-korta eta l'eñagarikano bertsolariak gustura aritu ziren bertsotan eta entztleek ere aukera paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten, zuzen-zuzean umorez heteriko lertsoak entzunez.

II ilabete honetakoa **dugu** 1998 urteko azken gehigarria eta ferian aterataku hainbat argazkiz ilustratzea gauza polita izan zitekeela pentsatu dugu.

I lurrengo zita 1999 urteko urtarrilean izango da. Bien bitartean, urtea ondo amaitu eta berria hobeto hasit



❖ Gabonetako ekintzak

Abenduaren 24an, arratsaldeko 16:30etik aurrera, Olentzero aterako da herriko kaleetara, Eliz Abesbatzak lagunduta. Hurrengo igandean, hilak 27, Frontoian eta Herriko Enparantzan Jolas Parkea jarriko da Mendaroko umeez jolasteko aukera izan dezaten. Azkenik, urtarrilaren 5ean, Arno Guraso Elkartearen ardurapean, Errege kabalgatarekin gozateko aukera izango dute haurrek.

❖ Diaporama emanaldia

Ostiralean (abenduak 11), "Gipuzkoako festak: Uda" izeneko diaporama emanaldia izan zen Javier Juanesen eskutik. Abenduaren 22an, berriz, iluntzeko 19:00etan "Udazkeneko festak: udazkeneko eta negu hasierako festak" emanaldia izango da Kultur Etxean eta Gipuzkoako hainbat herrietako festak ikus ahal izango ditugu: Santu Guztien eguna, San Martin feria Zegaman, Santo Tomas feria Donostian, Azpeitian eta Arrasaten, Olentzero Abaltzisketan, Errege Bezpera Donostian, Astotxo festa Lazkaon eta Donostia Eguna, besteak beste.

• IV. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa

Dagoeneko amaitu da Mendaroko IV. Ipuin Lehiaketan ipuinak aurkezteko epea. Guztira 35 ipuin aurkeztu dira. A mailan, 18 lan; B mailan, 9 eta C mailan, 9 idazlan. Sari banaketa urtarrilaren 3an, igandea, egingo da eguerdikoa 13:00etan, Mendaroko Kultur Etxean.

Dantza jaialdia Kontzezioko zubian

Abenduaren 6an, Herrialdeetako Musika eta Dantza Taldeen jaialdia izan zen. Bertan, Galizia, Extremadura, Andalucia eta Euskal Herriko taldeek hartu zuten parte. Gorlati pilotalekua gainezka egon zen, bai goizean eta baita arratsaldean ere. Herrialde bakoitzak bere dantza eta musika erakutsi zituzten. Gailegoen gaitak, andaluzen takoneoak eta ex-


tremeñoen rondailek aparteko giroa sortu zuten pilotalekuan. Euskal dantzari dagokionean, Mendaroko dantza solte eskolakoek lehen urte honetan ikasi dutena azaldu zuten. Azkoitikoek beraiek sortutako koreografia dantzatu zuten eta Elgoibar-ko Haritz Euskal Dantzari taldeak maila ezinhobea eman zuen Gipuzkoako dantzekin.



Gregorio Santa Cruz-i bunto liburua aurkeztu zen hilaren Oan

Abenduaren 8an aurkeztu zen 'Gregorio Santa Cruz Dantza Maisua' liburua, Oier Araolaza eibartarrak egina. Ekitaldiari Agustín Berasaluze txistulariak eman zion hasiera berak sortutako "Gurutzpeko Zortzikoaren" piezarekin. Ondoren, Araolazak liburuaren ezau-ganiak azaldu zituen. 1931 urtean Santa Cruzek Mendaron sortu zuen dantza taldeko kideak izan ziren Jose M.

Iriondo eta Jose Zabaletak eta 1958 urtean sortutako taldeko bi ordezkariak, Gregorio Vives eta Agustín Berasaluzek, garaiko pasadizoak eta dantza maisuarekin izandako harremana kontatu zituzten. Liburuak Garagartzako Plazan salgai jarri ziren eta, ohi denez, pastak eta ardo goxoa banatu ziren, Mendaroko Txistulari Taldeak Gregorio Santa Cruzen dantzen musikarekin giroa alaitzen zuen bitartean.



Atzo, abenduak 17, gure artean izan zen Gotzon Garate atsotitzek erakusten duten Euskal Herriari buruz berba egiten. Deustuko Unibertsitatean irakaslea den idazle elgoibartarrak atsotitzei buruzko liburua argitaratu berri du. Bertan, 27.000 atsotitz jaso ditu euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta latinez. Liburu honen inguruan sortu den ikusmina kontuan izanik, honako galdeketa egin diogu.

"Atsotitzetan garbi ikusten da euskaldunok berbakoak garelan"

Liburua 30 urteko lanaren ondorioa da. Gogorra izan al da?

- Ez, aitzitik, oso gustuko lana izan da. Euskaraz ongi idaztea izan da beti nire grina. Horretarako, baserrietara joatea erabaki nuen. Beti agendatxo batekin eta magnetofoiarekin ibiltzen naiz eta bikaina iruditzen zaidan guztia jasotzen dut. Atsotitzez gain, milaka hitz, esamolde eta esakera jaso ditut eta horiek ere, argitaratzeko asmoa daukat.

— **Gaztelaniaz, ingelesez eta latinez ere eman dituzte atsotitzok.**

- 8 urte behar izan ditut euskal atsotitzei beste hiru hizkuntzetako baliokideak aurkitzeko. Detektibe bat bezala ibili naiz, banaka banaka aztertzen. Gogoan izan behar da ez direla itzulpenak, herriak esaten ditue-

nak baizik. Adibidez, euskarazko "Asto bati buztana moztu eta bertzeari paratu" atsotitza, ingelesez "To rob Peter, to pay Paul" esaten da, espainolez "Desvestir un santo para vestir a otro" eta latinez "Altare spoliat, ut aliud operiat".

— **Zein baserrian ibili zara?**

- Zazpi probintzietako baserrietan. Guztira 23 izan dira. Zenbait baserrietara telefonoz jotzen dut. Elgoibarraren bertan badut adiskide jator bat. Telefonoz bakarrik ezagutzen dut baina ederki erantzuten dizkit galdera guztiak. Zeleta baserriko Begoña San Martin da.

— **Nori dago zuzendua?**

- Batez ere, euskara aberastu nahi dutenei: idazleak, irakasleak, irratan ari direnak, itzultzaileak... 14.000 atsotitzotan agertzen den

euskara zoragarria da. Baserrietan euskara entzunez, ni Beethovenen sinfoniak entzuten bezala egoten naiz. Horiek bai euskaraz ongi egin!

— **Atsotitzek isladatzen al dute berri baten izaera?**

Bai horixe! Atsotitzek euskaldunak nola ginen azaltzen digute. Gauza bat garbi ateratzen duzu: euskaldunontzat bizi-roik txarrera alferkeria da. Mozkorra, andre-zalea (edo gizon-zalea), jokalaria... bazara, gaitzerdi. Alferra bazara, orde, munduko azkena zara.

Zuk zein duzu gustukoa?


- Ingelesez dagoen atsotitz bat gustatzen zait gehien: "The basque is faithful" (euskaldunak, emandako hitza betetzen du). Atsotitzak esperientziatik aterata daude eta ingelesek harremana izan zuten euskaldunekin burniolak zirela eta. Arjentinan ere horrela esaten dute, "palabra de vasco". Guk esaten dugun bezala, "Euskalduna, berbakoa". Hori da gustukoaren dudana eta, Jaungoikoaren laguntzarekin, betetzen saiatzen naiz egunero bizitzan.

— **Noizko eleberri beltz bat kalean?**

- Liburu batzuk ia bukatuak dauzkate: "Incliako orotzapenak". "Euskal polizia eleberrien kondaira", ipuin bilduma bat, "Zakurrak" eta "Jon gezur". Beste eleberri beltz bat ere hasia dut. Gauza batekin pozik nago. Elgoibarren, besteak beste, hiru idazle gaudela: Jasone Osoro, Hasier Etxeberria eta hirurok. Herri guztietan horrenbeste baleude, euskarak indar handia hartuko luke.

Ci
↑↑↑↑↑
C'

EESTEE1 ESAN/1
"Bihotzez eta maitasunez, gure Euskal Herriari -bere funtsa diren ezkutuko gizakiei batez ere- eskaini dion betirako aitormena da liburua" **ROMAN GARATE**, anaia.




(11)

111111111
-1
4:11
-111

BEEP

HURBIL S.M • Zerbitzu Informatikoak
San Ignazio 4 • Tel: 943 74 08 50

- INFORMRTIKR EKOIZIWW-DENDR-KRIE LIDEFUIR (200 SfilMENTFI PUNTUTIK GORA)
- INFORMRTIKR MfIRKR RINTZINDFIFIEN FIGENTE BFINRTZR ILER: HEWLETT PFICKFIRD, EPSON, TOSHIBfi, MICROSOFT, CRNON, CRERTILIE, ETRB.
- ESTRTU MRILRN SRLMENTETIIN LIDEFIRR



134.900 pta tAy
156.484 pta BEZarekin

Tay 350EMULTIMEDIA
REDDIS SER1EA,
INTEL PROZESADOREAREKIN
• ENTIVM 11

**ISO 9002 KRLITRTE ZIURTFIGIRIR LORTU DUEN
ESTFITUKO INFORMIRTIKFI DENDR KRTE 13FIKRRRFI
%.ESKULRNERN eta PIEZFITRN 3 URTEKO BERMER
ESKRINTZEN DUEN LEHENR**



Aste honetako en'etratua Sabin Osorok ekarri digu eta 79 urte-edo izango ditu. Argazkia San Lorentzo inguruan aterata omen daga baina zeren bueltan ez dakigu. Argazkiko gehienak kaletarrak dira, nahiz eta tartean San Lorentzoko auzotarrak ere badagoen.

Sabinek esan digunez, "nere aitxak gordeta zeukan erretratu hau eta ointxe azaldu da".

Argazkian azaltzen diren guztien izen-abizenik lortze-

rik ez dugu izan baina batzuenak inguratu ditugu:


Atzealdean: Francisco Muguruza 'Patxi Ezkerra', alaba Sabina (gaur egun bizi den bakarra), Leonardo Etxeberria 'Debatxo',...

Bigarren ilaran: Irene Okamika, Jose Iriondo 'Sansón', Leoncio Gabilondo, Armendia, Romualdo Leiaristi 'Aldamar', Oteiza 'Karakate', Guillermo Gorostiza 'Santuru', Facundo Lizundia, Marcelino Aranburu,...

Hirugarren ilaran, eserita: Pablo Altuna 'Kele', Jose Etxeberria 'Parapan',...

Laugarren ilaran, lurtean jarrita: Tiburcio Beristain, Justo Arriola 'Gelaxorrota', Francisco Osoro 'Patxi Mutriku',...

II. Urteurrena



714,1 /ice"e,cfa dical.45<i"

1996ko abenduaren 16an hil
zen 26 urte zituela.

*Mundu honetan maiz izaten da
pena eta nahigabea.*

*Bi urte hauek pasatu dute
gerorren baitan goldea.*

*Oroitzapenak betetzen digu
memoriaren labea.*

*Gure artean leku bat dugu
bero horretan gordea.*

*Gau oskarbiko zilar izar bat
da leku horren jabea.*

Zure kuadrilakoak

KIROL ALBISTEAK • KIROL ALBISTEAK

• Kirol sorospenari buruzko Ikastaroa

Deba bailarako Udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek, oinarriko sorospenari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu dute entrenatzaile, eskola kiroleko monitorea, ikastetxeetako irakasle, etab. entzat. Eibarko Kiroldegiko medikua den Alejandro Altunak emango du ikastaroa abenduaren 23an, goizeko 9:00etatik 14:00etara bitartean. Deba bailarako edozein kirol zerbitzutako bazkideek 500 pta. ordaindu beharko dituzte izena ematerakoan eta gainerantzekoek, berriz, 1.000 pta. Izena emateko 943 74 44 15 telefonora deitu.

• Bihar. hilak 19, Elgoibarko I. Tenis Txapelketako finalak izango dira

Elgoibarko I. Tenis Txapelketa azken fasera iritsi da. Bihar, hilak 19 (zapatua), hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatuko da goizeko 10:00etan Andres Iturbe eta Joseba Carmonaren artean. Ondoren, eguerdiko 12:00etan hain zuzen, finala jokatuko da. Jonny Taborcia eta Ander Oilederra dira aurrez aurre txapelaren bila arituko direnak. Partiduok 1MHko tenis pistan jokatuko dira. Euria egingo balu Olaizaga Kiroldegian izango dira norgehiagokak.


• Alberto Berasategi tenista ezaguna Elgoibarren izango da abenduaren 23an

Abenduaren 23an, asteazkenena, arratsaldeko 18:30ean hasita, Tenis Jai izango da Kiroldegian. Haurrentzako jolasak egongo dira eta opariak ere banatuko dituzte. Dena den, parte hartu nahi duten guztiek ordu erdi lehenago bertan egon beharko dute eta antolatzaileek esan digutenez, ez da beharrezkoa izango raketarik eramatea. Ekitaldi honen bueltan, Alberto Berasategi tenista bizkaitarra Elgoibarrera ekartzea lortu dute antolatzaileek eta arratsaldeko 18:00etatik aurrera, tenis erakustaldia eskainiko du, Jose Antonio Konde tenis jokalarikatalana aurrez aurre izango duelarik. Sarrera doan izango da.


• Morkaikon Jaiolza ipintzeko irteera

Urtero bezala, Morkaiko Mendizale Elkarteak Jaiotza ipintzeko irteera antolatu du Morkaikora. Mendi buelta zapatuan, hilak 19, izango da, goizeko 9:00etan Plaza Handitik irrenda. Bestalde, Morkaikok antolatu duen argazki lehiaketaren erakusketa hilaren 23an hasiko da. Lehiaketan dozena bat lagunek hartu dute parte eta argazki guztiak Kultur Etxean egongo dira ikusgai hilaren 30era arte.

OKI JET+ 35111ftutzimEDIA
OJ




154.000 pta.




Buztintxulo. 35 behea • DONOSTIA
Tel: 943 29 39 34 Faxa: 943 29 38 33
Azpillogete kaiea, 19 • MENDARO
Tel: 929 41 96 33

EPSON -35~MEDIA
Stylts col 640



171.000 pta.


350 MULTIMEDIA
INTEL PROZESADOREAREKIN PENTIUM II




Semitorre ATX
Pentium II ATX/BX AGP
3.5" 1.44Mb
64 DIMM SDRAM
3,4 GB ULTRA DMA
SVGA AGP 81013
CD-ROM 36 Pioneer
Digital 14" 0.28
Windows-95 PS/2
Net EASY MOUSE PS/2, alfonbrilla
Soinu tarjeta
240 Wko bozgorailuak

176.000 pta.

H + 350 MULTIMEDIA
DeskJet 6 70C



HP+ 350 MULTIMEDIA
DeskJet 720 C



B.E.Z-ik gabeko prezioak

10 kuadrilak eman dute izena Gabonetako VIII. Kuadrilarteko Txapelketan

Partehartzeak behera egin du. Iaz, esaterako, 16 talde aritu ziren

Astlehenean, hilak 21, Udal Kirol Patronatuak antolatuta, Gabonetako VIII. Kuadrilarteko Txapelketa hasiko da. Aurten, sekula baino talde gutxiaga animatu dira parte hartzera. Duela bi urte, 32 kuadrilak eman zuten izena. Iaz, 16 izan ziren eta aurten, 10. Hala ere, antolatzaileek txapelketarekin aurrera

jarraitzea erabaki dute eta hortaz, astelehenean jokatuko dira lehenengo probak. Izan ere, krosarekin hasiko da txapelketa. Proben egunetgia eta orduak ondorengo taulan zehaztu ditugu. Ohi denez, finalak hilaren 31n, Gabonzahar egunean jokatuko dira. Sari banaketa finalen ostean izango da.

Gabonetako 1/111. Kuadrilarteko txapelketa

EGUNA	KIROLA	TOKIA	ORDUA
Hilak 21	Krosa	Plaza Handian	19:00
Hilak 22	Pala Saskibaloia	Ikastolako frontoian Kiroldegan	17:00 22:00
Hilak 23	Areto futbola	Kiroldegan	22:30
Hilak 28	Txirrindularitza Saskibaloia	Kiroldegia-Erretxindi Kiroldegan	20:00 22:00
Hilak 29	Saskibaloia Areto futbola	Kiroldegan Kiroldegan	19:00 22:00
Hilak 30	Saskibaloia Areto futbola	Kiroldegan Kiroldegan	19:00 22:00
Hilak 3 I	Saskibaloia tfinalat Areto futbola (finala)	Kiroldegan Kiroldegan	17:00 18:00

KIROL ALBISTEAK

• Igeriketa txapelketa izango da hihar, hilak 19

Bihar, hilak 19 (zapatua), Elgoibarko Igeriketa Taldeko infantil, kadete eta juvenilek Eibarko Ipurua Kiroldegan izango den neguko ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute. Igerilariak ondorengoak dira: Ines Segura, Esther Ajobita, Ion Zubiaurre, Mikel Etxaniz, Luis M. Orza, Asier Cordan, Iñaki Iglesias, Ane Barrenexea, Miren Arrieta eta Aitor Gisasola. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, berriz, Elgoibarko Olazaiga Kiroldegan benjaminen eta alebiren txapelketa izango da. Hortaz, igerilekua itxita egongo da Kiroldegiko bazkideentzat. Hona hemen parte hartuko dutenak: Izaskun Esnaola, Irati Bollar, Lara Urain, Josu Abad, Gorka Otero, Alberto Fernandez, Ane Odria eta Ane Arrillaga. Huez gain, Azpeiti, Azkoiti, Oriati, Legazpi, Bergara, Arrasate eta Eibarko igerilariek ere harutko dute parte.

E M 1 L I T Z ' A . K .
Futbola
Haundi 1 - Athletic 0 Elgoibar 2 - Urki 1 (1. erreg.) Urki 2 - Pedrusko 4 (2. erreg.) Real Sociedad 9 - Elgoibar 0 (L. N. jub.) Elgoibar 1 - Urki 5 (Jub.) Elgoibar 0 - Bergara 1 (Kad.) Antiguoko 5 - Elgoibar 0 (Int.) Bergara 1 - Elgoibar 5 (Neskak)
Eskubaloia
El Pilar 21 - Pneumax Elg. 11 (Kad. mut.) El Pilar 14 - Tecnomeca Elg. 38 (Juh. mul.) IMS Elg. 20 - Askartza 12 (Senior nes.) Bergara 29 - IMH Elg. 29 (Senior mul.)
Futbitoa
S. Braga 5 - Brrogei Duro 2 Lojanzi 7 - Kunta Kinte 2 Aizkorak Mendibil 5 - Los Herminios 6 Aide Globun 2 - Los Peñascos 3
Areto Futbola
Zur Ta Lur Elg. 7 - Bidebiela 6 (Auto.) 7u r Ta Lur Elg. 4 - Extremeño 4 (1. maila)
I. Tenis Txapelketa
Finalaurdenak: Ander Oñaderra - Abel Hernandez 5/2 5/4 Joseba Carmona - Antonio Alvarez 6/2 6/4 7/5 Jonny Taborcia - Jorge Aradir 5/1 7/5 Andres Iturbe - Martin 5/3 5/3 Finalerdiak: Ander Ofiederra - Joseba Carmona 6/3 6/4 Jonny Taborcia - Andres Iturbe 6/1 7/5
Xakea
Elgoibar A D - San Andres B 4 (1. maila) Elgoibar B 2,5 - Legazpi A 1,5 (1. maila) Legazpi B 1 - Elgoibar C 3 (2. maila)
GEIN 11) Pi,
Futbola, Mintxetan
Larunbata, 19 12:00 Elgoibar - Zarautz (Neskak) 17:00 Haundi - Amurrio 18:45 Elgoibar - Indartsu (L. N. jub.) Igandea, 20 12:15 Elgoibar - Lagun (int.) Osteguna, 24 16:30 Elgoibar - Real Unien (Xogako linalat)
Eskubaloia, Kiroldegan
Larunbata, 19 16:00 Pneumax Elg. - Sercoin (Kad. mut.) 17:30 Tecnomeca Elg. - Sercoin (Jub. mul.) 19:15 IMS Elg. - A. Mendi (Senior nes.)
Futbitoa, Kiroldegan
Igandea, 20 Futbitoa, Kiroldegan 20. igandea 10:00 PSK - Los Peñascos 11:00 lojanzi - Menisco 12:00 Los Herminios - kele Globun
I. Tenis txapelketa, 1MHko pistan
Larunbata, 19 10:00 Andres iturbe - Joseba Carmona (3. eta 4. postuak) 12:00 Jonny Taborcia - Andre Ofiederra (Finala)

0111S0
TABERNA

—EGUNEKO MENUF1K—
—GRUEZ—
Ostcral eta larunbatetan
PrikargUzkO afariak

OB DUTEGIB:
Istelehenetik ostiralera 7:013- 22:3 B
Larunbatetan 9:00 tik aurrera

Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85

- Kontabilitate
- Lan



URKIDI

Fiskal AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
943 74 18
91

Ekekei antzerki taldeak 10 urte bete ditu

Urte hauetan 4 antzezlan asmatu, idatzi eta prestatu dituzte



Ekekei antzerki taldeko kideek 10 urte daramatzate zine-antzekietan eta 'Zirkuito alternatiboa' deitzen den horretan eurek sortu, landu eta prestatutako lanak antzeztzen. Askotan, garai bateko 'komedian-teek bezala' ibili behar izan dute, "behin gertatu zitzaigun txosnetan, obra antzeztzen hasi eta txosnetako musika ez kentzea". Ajeak alde batera lagata, "gutxienez, beste 10 urtez" ikusten dituzte euren buruak antzerki amateurraren munduan, "nahiz eta batzuei jubilazioa ere iritsiko zaien ordurako", esan digute umorez.

- zaskun Arozena, Iñaki Odriozola eta Xabi Ansolarekin berbetan izan ginen Ekekei antzerki taldearen 10 urte hauei errepasoa emateko asmoz. Hiru elgoibartar hauek, Jose Martin Urrutia 'Txotxe' eta Mikel Osororekin batera, hasierako Ekekeikoak dira. Tartean, beste batzuk ere izan dira: Diana Nrez de Albeniz, Bixente Irusta, Iriaki Ansola 'Txanbo', Carlos Balseiro eta Fernando Elizondo. Gaur egun, hasierakoez aparte, Lorea Perez de Albeniz, Igor Odriozola, eta Mikel Cornejok osatzen dute taldea. "Mikel Cornejo kanpora joan denez, gure azken lana, *Fumantxu, Gernikako arbolaren gerizpean* izeneko, moldatu egin behar izan dugu. Bere pertsonaia, *Superpollo*, oinaffizkoa da antzezlanean eta 'Txotxe'k betetzen du orain paper hori eta nik, (Xabi), berriz, aktore lanean hasi behar izan dut. Hala ere, azkenaldian *Hiltegia* obrarekin ari gara".

4 antzezlan 10 urtean

Ekekei antzerki taldeak antzeztu dituen lan guztiak taldekideek beraiek pentsatu, idatzi, landu eta prestatutakoak dira. Lau antzezlan egin dituzte gaur arte: 1988an *Ni naiz kapitain pilotu*; 1991n *Handia zara txikitxo*; 93an *Hiltegia*, eta iaz, *Fumantxu, Gernikako arbolaren gerizpean*. "Gidoia, eszenografia, jantziak,... guk egiten dugu dena, eta azken bi antzezlanetako musika ere, guk sortutakoa da. Autosufizienteak gara eta hori zorte bat da ze, talde



1988. *Ni naiz kapitain pilotu*, ~ taldearen estreinako lana.



1991n, *Handia zara txikitxo* plazaratu zuten.



Hiltegia 93an estreinatu zuten.



97 urtea. *Fumantxu, Gernikako arbolaren gerizpean*, azken lana.

askok arazoak izaten dituzte gidoiak aukeratzeko orduan, edo eszenografiarekin,...". Zailena, ordea, "taldeko dinamika mantentzea da, bakoitzak lan bat dauka, ordutegi aldetik elkartzeko arazoak izaten ditugu,...".

Antzezlanak ezezik, bi sketch ere egin izan dituzte. "Bi okasiotan izan ditugu kolektiboen eskariak eta momentu puntual horietarako kaleko muntaia txikiak prestatu izan ditugu, baina gure jarduera orokorrean, beti berbera izan da: momentuan nahi izan duguna egin dugu beti".

Sare alternatiboa

Gaur egun, erakunde publikoek antzerki profesionala bakarrik laguntzen dutela salatzen dute. "HelT12 herriko sare bat dago talde profesionalentzat baina amateurrentzat ez dago ezer. Horregatik, gu bezalako taldeok, sare alternatibo bat topatu behar dugu: Gaztetealc, txosnak, plazak... Gaur egun, hala ere, sare hau gero eta ahulagoa da. Gaztete asko itxi egin dituzte eta edozein tokitan antzezteka tokatu izan zaigu. Jeneralean, azpiegitura oso kaxkarrak izaten dute toki hauek". Hala ere, ez diote uko egiten antzekietan antzezteari. "Aitzitik, Elgoibarren, Azkoitin eta inguruan oso antzoki majoak daude, baina kasu askotan, antzoki batean antzezteko, guk geuk alokatu behar izaten dugu lokala, eta klaro, gu bezalako talde batek ezin dio horrelako gastu bati aurre egin". Taldearen diru-iturri bakarra "emanaldietatik ateratzen duguna da. Askotan, zenbait proiektu aurrera ateratzeko, kreditu pertsonalak eskatu behar izan ditugu".

Emanaldi berezia Gaztetean

10 urte bete dituztela-eta, "guk ez dugu ekitaldi handirik antolatatu. Batek, Ongarri Argazki Taldearen laguntzaz, 10 urteotako argazkiak ikusgai jarri ditugu Orbea, Pol-Pol, Oiz-Mendi, Txuri-beltz, Karobi eta Lanbroa tabernetan eta Gaztetean. Bestetik, abenduaren 23an, gaueko 22:30ean, emanaldi berezia eskainiko dugu Gaztetean. Lau antzezlanekin egin dugun muntaia txiki bat da".

Txanpaina, koloniak, jostai-luak, turroia... Etxe barruraino sartu zaizkigu dagoneko Gabonak. Gero eta le-

henago iristen dira komunikabideen eraginez eta konturatu orduko, Urte berri on! esaten hasi behar dugu. As-

paldian gero eta sarriago entzuten da jendeak ez dituela gustuko Gabonak. Ea zer dioten gazteek.


- 1- Bueno, ez da gauza oso espeziala. Oporrak daude eta alde horretatik ondo baina bestela...
- 2- Neri Olentzerotan itxen die eta nik behin edo behin ein izan dot detaileren bat, baina ostan-tzian... Txikitan ilusiva itxen zian baina oin, gero eta gehixo ikusten dot kontsumitzeko fe-txak diazela.
- 3- Olentzero ikustia gustatzen jata eta Kabalgatara ere bai. Horrez gain, Gabonzahar eguna politxa da juergia itxeko eta jendia ezagutzeko, bi mu-su emateko jendiari...
- 4- Gauza asko aldatu-ko nitxuzke baina hola zeozer konkretua ez jata okunitzen,

Leire Agirrebeña



17 urte

Juan M. Abal



17 urte

- 1- Bai. Oporrak izateaz gain, familiarekin ego-teko aukera daukazu, lagunekin atera... Gabonak hurreratzen dire-la ikusteak poztu egiten nau.
- 2- Bai. Gurasoek opariren bat egi-ten digute beti arrebari eta bioi eta nik ere erosten diet zerbait. Dena dela, garrantzitsuena detailea da, ez diru asko gastatzea.
- 3- Abenduak 31, Gabonzahar eguna. Egun hoiretan jendea alai egoten da eta giro polita izaten da. Musuen aitzakiarekin badirudi gehiago ligatzen dela, aurten pro-ba egingo dut!
- 4- Guztiontzat urte ona izatea. La-gunekin egon, denbo-ra libreza izan, guraso-ei lagundu...

1- GUSTATZEN AL ZAIZKIZU GABONAK?
2- BA AL DUZUE ETXEAN OPARIAK EGITEKO OHITURARIK?
3- ZEIN EGUN DUZU GUSTUKOENA? ZERGATIK?
4- ZER ESKATUKO ZENIOKE URTE BERRIARI?

- 1- Bai, baina tristura piska bat ere senti-tzen dot eta egixa da nahiko "pastelak" diazela. Hala ere, familiaia elkartzen gera ospatzeko eta ondo pasatzen dogu.
- 2- Nik jaso bakarrik itxen di-txut, ze momentuz ez dakat dirurik inori erregaluak eros-ten hasteko. Hala ere, fetxa hauek oso kontsumistak diaz eta gehixegi bonbardeatzen gaitxue anuntziuekin.
- 3- Gabonzahar eguna berezixa da eta juergia politxa izaten da. Oin arte Mendaron urten izan gera baina aurten segu-ruena Elgoibarrera etorriko gera.
- 4- Orokorrrian, bakia egotia. Eta nerretzat, arazorik ez euki-tzia eta ikasketak ondo jutioa.

- 1- Ni Gabonen erabat aurka-koa naiz. Iruditzen zait jend-deak jateko, edateko eta gau-zak erosteko bakarrik apro-betxatzen duela, benetan ze egun diazen ahaztuta.
- 2- Iaz oso kontra jarri nitzan eta ez naban erregalo bat be-rra ere jaso. Aurten zeozer la-saitxu naiz eta ez dakitx zer pasauko dan.
- 3- Ba, zela ez jatazen gusta-tzen Gabonak... Gabonzahar egunian oin arte ez naiz ur-ten. Ikusiko dot aurten...
- 4- Danetik piska bat, ezerren faltarik ez eu-kitzeko.

Itziar Lazkano



17 urte

Iosu Motriko



16 urte

- 1- Ni Gabonen erabat aurka-koa naiz. Iruditzen zait jend-deak jateko, edateko eta gau-zak erosteko bakarrik apro-betxatzen duela, benetan ze egun diazen ahaztuta.
- 2- Iaz oso kontra jarri nitzan eta ez naban erregalo bat be-rra ere jaso. Aurten zeozer la-saitxu naiz eta ez dakitx zer pasauko dan.
- 3- Ba, zela ez jatazen gusta-tzen Gabonak... Gabonzahar egunian oin arte ez naiz ur-ten. Ikusiko dot aurten...
- 4- Danetik piska bat, ezerren faltarik ez eu-kitzeko.

20

...igandea...

10:00 IMHko
MUSEOAREN ATE
IREKIEN EGUNA
12:30 MUSIKA
BANDAREN
KONTZERTUA
19:30-22:15 ZINEA
"Un romance muy
peligroso"

23

asteazkena

18:30 TENIS JAIA
Alberto Berasategi
temistaren
partehartzearekin
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea:
Udal Kirol Patronatua

19:00 MORKAIKOREN
ARGAZKI
ERAKUSKETA
Kultur Etxean
Hilaren 30era arte
Antolatzailea: Morkaiko

22:30 EKEKEI
ANTZEZTALDEAREN
10. URTEURRENEKO
SAIOA
Gaztetxean

19

larun bata

9:00 JAIOTZA
IPINTZEA
MORKAIKON
Irteera Plaza Handian

11:00 'BAI
EUSKARARI'
KANPAINAREN
KALEJIRA
Plaza Handian hasita

12:00 ZAZPIKIREN
BILERA
Ganbaran

13:00 'BAI
EUSKARARI'
MANIFESTUAREN
IRAKURKETA
Udaletxeko Areto Nagusian
Antolatzailea: Elgoibarko
'Bai Euskarari' Batzordea

19:30-22:15 ZINEA
"Un romance muy
peligroso"

21

astelehena

19:30 GARA
EGUNKARIAREN
TXOSNARAKO BILERA
Kultur Etxean
22:15 ZINEA
"Un romance muy
peligroso"

22

asteartea

15:00 GABONETAKO
JAIALDIA
Pilar ikastetxean
20:00 MUSIKESKOLAKO
IKASLEEN
KONTZERTUA
Parrokian

24

osteguna

11:00 OLENTZEROREN
KALEJIRA
Irteera Madalan
Antolatzailea:
Atxutxiamaiak B. T.

19:00 MUSIKA
BANDAREN KALEJIRA

18
ostirala

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

22:30 ARTAZO
BASERRIAREN
ALDEKO JAIALDIA
Herriko Antzokian



a.t.14c*,4* cw)r

Olaso industrialdea, Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



191)1114)11 Dfl IDAIs

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

Son Frantzisko, 49-1 Tel. 943 74 11 89



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 T1 943 74 12 56 - (mobila) 909 53 23 83



OHARRA: abenduaren 24ko BARREneko **Merkatu Txikian** oharrik jarri nahi baduzue, ez ahaztu **azken eguna astelehen goiza (hilak 21)** izango dela.

Agurrak

Lana

• ESKAINTZM

♦ Mutil arduratsua behar da zebait lan egiteko. a• 970 672 515

Igeltseroa behar da esperientziarekin. tr 943 12 08 63
909 71 05 91

• ESKAERM

• Umeak zainduko nituzke Mendaron edo Elgoibarren. tr 943 75 51 42 (Yoli. Goizez)

• Eriztazan diplortututako neska euskalduna eskaintzen dapertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean. Egunez, nahiz gauzez. Tr 943 74 27 78 (Itziar)

♦ Ozenki irakurtzen dut eta gaixoak eta laguntza behar duten pertsonak zaintzen ditut. Badakit euskaraz. tr 74 23 89 (M. Jesus)

• Erizain Laguntzaile tituloduna eskaintzen da zaharrak edo gaixoak zaintzeko. a 943 74 16 71

• Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientziarekin. tr 943 74 25 66 (Aitor)

Salerosketak

+ SALDU•

• Egurrezko berogailua saltzen da. Merkea. Ferroli markakoa. tr 943 74 16 39 / 74 41 28 (Tere)

• Wolksvagen Transporter Combi SS AV furgoneta saltzen da. Tr 943 74 40 87

* Hatzakalik gabeko katu pertsa oparitu nioke ondo zainduko lukeenari. Kapatua. Oso mimosoa da. tr 943 74 06 94 (13:00-18:00. M. Luisa).

• Lokal komertziala saltzen da. Pedro Muguruza etorbidea, 24-3.esk.ir 943 74 06 48

• Bi hilabeteko cocker txakur-kumeak salgai. ir 943 75 60 25

• Wolksvagen Golf GTI 1800 zuria salgai, 1992koa. Egoera onean eta ITVa pasa beni tr 943 81 62 20

• Zorionak Bartu! Aspaldian ez g.aitik ikusten. Ea sarriago etortzen haizen! Kuadrilakoen partez.

• Zorionak Nerea Urangari here familia guztiaren partez, bereziki, lon eta Mikelen partez.

• Zorionak Ion Perez Cortes-igandean, abenduak 20, urteak beteko dituelako. Gurasoen eta anai Julenen partez.

♦ Supernultisuper bene-benetan super zorionak Nora Unzuetari Ikastolako DBHko zuk dakizun guztien partez. Ondo pasa Nikola-sa eta ondo ibili Mari Pili.

• Zorionak Maialen Sanchez Mateori hilaren 9an 13 urte bete zituelako. Melany eta Kevinen partez.


♦ Zorionak Nadiari abenduaren 17an urteak bete zituelako. Danel, Elixabet, Estibaliz eta 5A eta 5B gelakoen partez. Ondo pasa gonbitan.

• Zorionak Albari abenduaren 10ean 10 urte bete zituelako. Gelako guztien partez, bereziki, Luzia, Laura eta Cristinaren partez,

• Zorionak Conehi Pradori abenduaren 8an urteak bete zituelako. Itsaso, Ester eta Ibairen partez.



• Zorionak Olatz Astigarragari abenduaren 29an 6 urte beteko dituelako. Guraso Patxi eta Eli eta ahizpa Amaia-
ren partez.



♦ Zorionak Koldo Aldalurri abenduaren 14an 9 urte bete zituelako. Familiaren eta, bereziki, arreba Itziarren partez.

• Zorionak Sarriari nahiz eta piska bat berandu izan. Familia osoaren partez muxe haundibat.

• Zorionak Elgoibarko Mitx Buchanan-i bere 28. Urtehetetzean. Kontuz pistinako neskekin! Koadrilaren partez.



• Zorionak Ion Ander Pascuali abenduaren 21ean 9 urte beteko dituelako. Arreba Alejandroren partez.



• Zorionak Itsaso Rodriguez abenduaren 15ean 3 urte bete zituelako. Gurasoen eta ahizpa Joanaren partez. Hiru rakada haundi aitxitxa Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.



• Zorionak Itsaso Rodriguez abenduaren 15ean 3 urte bete zituelako. Gurasoen eta ahizpa Joanaren partez. Hiru rakada haundi aitxitxa Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.




• Zorionak Patxi Iraolari gaur, abenduak 18.44 urte bete dituelako. Bere alabaxo Ione eta emazte Gemaren partez. Musu haundibat.




• Zorionak Ion Ander Pascuali abenduaren 21ean 9 urte beteko dituelako. Arreba Alejandroren partez.



• Zorionak Itsaso Rodriguez abenduaren 15ean 3 urte bete zituelako. Gurasoen eta ahizpa Joanaren partez. Hiru rakada haundi aitxitxa Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.




• Zorionak Arantxari abenduaren 10ean 3 urte bete zituelako. Osaba Luis eta Evaren partez.



♦ Zorionak Amaia abenduaren 12an 3 urte bete zituelako. Familia osoaren partez eta, bereziki, guraso eta

anaiaren partez musu haundibat.

• Zorionak Maialen Sanchez hilaren 9an 13 urte bete zituelako. Guraso Manu eta Palkiren partez.



• Zorionak Iskanderri abenduaren 16an 3 urte bete zituelako. Familiaren partez.

• Zorionak killa! Mende laurdena bete duzu jadanik baina lasai. Milla musu IMHko lagun partez eta ondo pasa!



• Zorionak Adriani Chicori abenduaren 20an 8 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

• Zorionak Ainhoa Garcia Mallori abenduaren 20an 4 urte beteko dituelako. Guraso. Jacinto, Luisa eta familia osoaren partez maitasunez.



• Zorionak Ignaciari abenduaren 13an urteak bete zituelako. Guraso, Borja, Itziar eta familia osoaren partez.

• Zorionak Iosu Garitagotari abenduaren 8an urteak bete zituelako. Familia osoaren partez.



• Zorionak Iban Herbiase gaur, hilak 18, 4 urte bete dituelako. Guraso, arreba Nerea eta aitona-atnonen partez.

O4/(tzer-otw zaialk<

IKUS OPTIKA
Betaurrekoak



ECENARRO MERTZERIA
Pixama eta bata



SARA JANTZIDENDA
Jaka (10.750 pta.)
Jertsea (7.900 pta.)



CASCANUECES
Eskulanak



JON SASTRERIA
Praka,
txamarra eta
alkondara



LEIZABE ELEKTRIZITATEA
Musika ekipoa (41.900 pta.)



IRIONDO KIROLAK
Goretex txamarra

Morkaikoko
bortelarekin %10
beherapena



PITXINTXU
Opariak
Otik 99 urtera bitartean



MAIDAGAN
Moda



ESKANDALO
Lentzeria
(5.850 pta.)



LETE JANTZIDENDA
Gazte moda



BAZAR DESDE 1 00
Olentzero



OSORO ZAPATADENDA
Etxeko zapatilak



MUXI KIROLAK
Kirol moda



IRIONDO ALTZARIDENDA
Alfonbrak



KARKIZANO
Etxerako
eta barruko
arropak



ASTIGARRAGA KIROLAK
Kirol moda



ABARKA ZAPATADENDA



FERPI MODAK
Emakumezko eta
gizonezko moda



40tik 60ra
bitarteko tailak

UZUR1 OPTIKA
Betaurrekoak




*Orain arte dotoretasuna
dohain naturala izan da*



*Hyundai Sonata berria, 3.190.000 pta.tik aurrera**

Bertute bat izan da. Denek onartzen dute, baina oso gutxi ausartzen ziren definitzen. Hyundai Sonata berriak amaiera eman dio zalantza horri. Indarraren eta edertasunaren arteko konbinazio paregabea sortuz. Bi ezaugarri bateratuz: diseinu erakargarria eta berritzailea, eta motor berrien potentzia. Auto honek soberan dauzka estiloa eta pertsonalitatea. Dotoretasuna, Hyundai Sonata berriaren bidez, ondasun material izatera pasatu da. Orain artean pentsa ezin zitekeen zerbait. Bezeroak Atenditzeko Telefonoa: 902 246 902

151, 1)
urteko
11 TU



Hyundai Sonata berriarekin bi motor berriren artean aukera dezakezu: 160 ZP-ko 2.5 V6 aluminiozkoa edo 130 ZP-ko 2.0a. Serieko ekipamendu paregabean, gainera, klimatizatzailea eta airbag bikoitza (aurrekoa eta albokoa) datoz.



+Penintsula eta Befeurretarako gomendatutako PREZIOA. Matrikulazio-zerga, BEZ, garraioa eta matrikulazio-gestioa barne.

Gidatu rharka handi bat